

OSASUN ARLOKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZARAKO ESTRATEGIAREN ERDIRA IRITSI GARA ETA UGARIAK IZAN DIRA EZARRITAKO EKINTZAK

Iñaki Berraondo Osasun sailburuordeak, gaur, Eusko Legebiltzarrean, Euskadin biztanleen osasuna hobetzeko eta garapen sozioekonomikoari laguntzeko estrategia honen tarteko ebaluazio-txostena aurkeztu du

Aurreikusitako 10 ekintzetatik ia 9 hasi ditugu edo ezartzen hasiak gara estrategia garatzen hasi ginenetik bi urte eta erdi igaro direnean

Ekintzen ezarpen-maila handiarekin batera gero eta hobekuntza handiagoa antzematen da ikerketaren jardunean eta bere eraginean

2015aren eta 2017aren artean, % 17,4 hazi da osasun-sisteman I+Gren inbertsioa eta % 66 finantzaketa lehiakorraren erakarpena Gaur egun, osasun-sistemak I+Gko 2.000 proiektu baino gehiago ditu eta 95 euskal erakunderi ematen die laguntza

2020rako Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntzarako Estrategiak aurreikusitako ekintza guztietatik ia gehienak bete edo hasi ditu lehen urteetan Horrela egiaztatzen du tarteko ebaluazio-txostenak, strategiaren erdian **aurreikusitako 10 ekintzetatik ia 9 martxan daudela** adierazten duenak.

Iñaki Berraondo Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuordeak, María Aguirre Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendariarekin batera, gaur, Eusko Legebiltzarreko Osasun Batzordean, estrategia horren tarteko berrikuspen-dokumentua aurkeztu du, osasun-sisteman ikerketaren eta

berrikuntzaren sustapena zehazki aztertzen duen lehena, helburu bikoitzarekin: **biztanleen osasuna hobetzea eta garapen sozioekonomikoari laguntzea.**

2016an hasitako Estrategiari buruzko txostenak ziurtatu egiten du egin den aurrerapena 4 ardatz estrategikoetan -Inpaktu, Integrazioa, Pertsonak eta Baliabideak- baita aurreikusitako helburu guztietan ere. **Planteatutako 57 ekintzetatik erdia baino gehiago ezarrita daude dagoeneko edo garapen-fase aurreratuan.**

Aurrerapen nagusien artean nabarmentzekoak dira:

- RIS3 Euskadi biozientziak-osasun arloaren lidergoa eta lankidetzaproiektuen garapena
 - berrikuntza irekiko proiektuen garapena, osasun-sistematik bertatik sortutakoena (Baliosasun programa), eta hirugarrenei zuzendutako laguntza berrikuntzaren eremuan (Innosasun programa), dispositibo medikoen eremua bereziki nabarmentzen dela kontuan hartuta
 - Osasun-arloko Ikerketa Institutuetako jardueren koordinazioa, jagoletza lehiakorra barnean dela
 - informazio-sistemen eta tresnen hobekuntza I+G+b garatzea ahalbidetzeko eta integrazioa lan asistentzialarekin.
 - posizionamendua Europan
 - konpromisoa Europar Batasuneko Human Resources Excellence zigiluarekin
 - inbertsio handiagoa I+Grako, bereziki Osasun Sailarena eta Osakidetzarena, azken urteetan % 23tik gorakoa

Estrategiaren barruan, gainera, **osasun-sistemaren I+G+b jarduerako erakundeen mapa osatu** da, sistema bakarra eratzen duten 5 erakunderen inguruan (bioef, bioaraba, biocruces-bizkaia, biodonostia eta kronikgune)

Estrategia zabaldu izanak areagotu eta indartu egin du osasun-sistemak ikertzeko eta berritzeko duen ahalmena. 2015 eta 2017 artean horrek ekarri du:

- ✓ **% 17tik gorako igoera** I+Gko jardueretako inbertsioan.
- ✓ **% 66ko igoera finantzaketa lehiakorraren erakarpenean**, batik bat I+G+b zentroak egituratzeagatik eta pixkana profesionalizatzeagatik.
- ✓ **Ikertzaile-kopurua areagotzea (% 5)**. Bereziki nabarmentzekoa da langile horien **% 49 emakumeak** direla. Belaunaldien txandakatzea dela eta, azpimarratzekoa da 40 urtetik beherakoen ehunekoa handitu egin dela, izan ere, 2010ean % 5 zen eta 2017an % 20.

- ✓ **Jardueraren kalitatea hobetzea**; hori deialdi lehiakorretako arrakastatasaren igoeran ikusten da, baita prestigio handiagoko argitalpen zientifikoaren gehikuntzan ere (ia % 4).

Guztira, gaur egun, euskal osasun-sistemak mota guztietako **2.000 ikerketa- eta garapen-proiektu** baino gehiago ditu: oinarritzakoa, klinikoa, epidemiologikoa, osasun-zerbitzuetakoa, etab.

Era berean, osasun-sistema bazkide esanguratsu bilakatzen ari da hirugarrenei berrikuntza inguruan laguntza emateko; izan ere, **guztira 95 euskal erakunderi eman die babesa**, 2015eko kopuruaren bikoitzari. Aldi berean, **guztira ia 300 ideia edo berrikuntza-proiektu** sortu dira euskal osasun-sistemaren beraren barruan, kontuan izanik orain mota desberdinetako 36 garapenek osatutako zorro teknologikoa duela.

Osasun sailburuordeak adierazi duenez, ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak gizartearen eskaera ukaezin bat dira eta "osasun-sistemaren ohiko jardunean osorik integratzea, beste eragile, herrialde eta eskualde batzuekin elkarrekintzan eta lankidetzan aritzea, eta lortutako emaitzak hobetzea gure esku dago, bizi-kalitate eta ongizate orokor hobetzea batean eragina izateko".

Gasteizen, 2019ko martxoaren 20an